



IZFE, SA - INFORMATIKA ZERBITZUEN FORU ELKARTEAREN ETA OLABERRIA(E)KO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA

CONVENIO DE COLABORACION ENTRE IZFE, S.A., SOCIEDAD FORAL DE SERVICIOS INFORMATICOS, Y EL AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

Donostian, 2003ko Urtarrilaren 7an

En Donostia-San Sebastián, a 7 de enero de 2003

BILDUTA

REUNIDOS

Alde batetik, Txomin Mendoza Pérez jauna/andrea, Olaberria(e)ko Udaleko Alkatea.

De una parte, D/Dña Txomin Mendoza Pérez, Alcalde/sa del Ayuntamiento de Olaberria.

Eta bestetik, Joaquín Villa Martínez jauna, IZFE, S.A. - Informatika Zerbitzuen Foru Elkarteak Administrazio Kontseiluko Lehendakaria.

Y de otra, Don Joaquín Villa Martínez, Presidente del Consejo de Administración de IZFE, S.A.- Informatika Zerbitzuen Foru Elkarteak - Sociedad Pública Foral de Servicios Informáticos.

Bi alderdiek, nork bere Erakundearen izenean eta berau ordezkatzuz, hitzarmen hau izenpetzeko legezko gaitasun nahikoa aitortu diote elkarri, eta horretarako honakoak adierazi dituzte,

Ambas partes, actuando en nombre y representación de las respectivas Entidades, se reconocen mutuamente la capacidad legal suficiente para el otorgamiento de este convenio, y al efecto,

ADIERAZITAKOAK


EXPONEN

"Informatika Zerbitzuen Foru Elkarteak" Merkatal Erakunde Anonimoaren eraketari buruzko ekainaren 29ko 55/1993 Foru Dekretuaren 3. artikulua xedatzen du elkartearen gizarte-xedea, besteak beste, ondokoa dela: "Gipuzkoako Udalei informatika zerbitzuak eskaintzea une bakoitzean indarren dauden lankidetzak hitzarmenen esparruan".

Que el artículo 3 del Decreto Foral 55/1993, de 29 de junio, sobre constitución de la Entidad Mercantil Anónima "Informatika Zerbitzuen Foru Elkarteak - Sociedad Foral de Servicios Informáticos, S.A.", dispone que ésta tiene por objeto social, entre otros, "la prestación de servicios informáticos a los Ayuntamientos guipuzcoanos en el marco de los convenios de colaboración que se encuentren en vigor en cada momento".

IZFE, S.A. sozietateak erregularri eta etengabe egin dizkie informatika-zerbitzuak Gipuzkoako Toki-Erakundeei, horretarako izenpetutako lankidetzak hitzarmenen esparruan.

Que la prestación de servicios informáticos por parte de IZFE, S.A. a las Entidades Locales guipuzcoanas se ha llevado a cabo de forma regular y continúa en el marco de los convenios de colaboración suscritos al efecto.



Gipuzkoako Foru Aldundiak IZFE, S.A. sozietatearen bitartez Gipuzkoako Udalei informatika-zerbitzuak etengabe egin izanak foru-Erakundearen eta EUDELen artean lankidetzahitzarmen markoa izenpetzea izan du emaitza. Hitzarmen horrek Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalen arteko informatika-arloko lankidetzaz garatuko den harreman-esparrua arautu eta definitzea du helburu.

Hitzarmen horren bosgarren klausulan ezarritakoaren arabera, behar-beharrezkoa da Udalerri interesdunaren eta IZFE, S.A. sozietatearen artean berriazko lankidetzahitzarmena izenpetzea udalak informatika-zerbitzuak jaso ahal izateko.

Horrenbestez, esku hartzen duten Erakundeek lankidetzahitzarmen hau izenpetu dute ondoko klausulen arabera,

KLAUSULAK

LEHENA. *Hitzarmenaren xedea.* Lankidetzahitzarmen honek IZFE, S.A. sozietateak Olaberria(e)ko Udalerri egingo dizkion informatika-zerbitzuak zehaztea du helburu. Halaber, zerbitzuok egiteko era eta baldintzak zehaztuko dira, betiere Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta EUDELen artean izenpetutako hitzarmen markoan orokorrean ezarritako klausulei loturik, hitzarmen hau haren mende dago-eta.

BIGARRENA. *IZFE, S.A. sozietatearen betebeharrak.* Oro har, IZFE, SA sozietateak konpromisoa hartzen du, egindako informatika-zerbitzuei dagokienez, Olaberria(e)ko Udalak eskatzen dizkion informatika, mantentze eta kudeaketako arazoetan aholkularitza, sostengua eta laguntza emateko.

Que la continuidad de la prestación de servicios informáticos por parte de la Diputación Foral de Gipuzkoa, a través de IZFE, S.A, a los Municipios guipuzcoanos ha culminado en la celebración de un Convenio Marco de colaboración entre la Institución Foral y EUDEL, que tiene por objeto la regulación y definición del marco de relaciones en el que se va a desarrollar la cooperación en materia informática entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y los Ayuntamientos del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Que en virtud de lo establecido en la estipulación quinta de dicho convenio marco, es necesaria la formalización entre el Municipio interesado e IZFE, S.A. del correspondiente convenio de colaboración específico para la recepción por aquél de servicios informáticos.

En consecuencia, las Entidades intervinientes proceden al otorgamiento del presente convenio de colaboración de acuerdo con las siguientes,

CLAUSULAS

PRIMERA. *Objeto del convenio.* El presente convenio de colaboración tiene por objeto la determinación de los servicios informáticos que IZFE, S.A. prestará al Ayuntamiento de Olaberria, así como la forma y condiciones de realización de los mismos, con sujeción a las estipulaciones establecidas con carácter general en el convenio marco celebrado entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y EUDEL en el que el presente se inscribe.

SEGUNDA. *Obligaciones de IZFE, S.A.* Con carácter general, IZFE, S.A. se compromete a prestar el asesoramiento, apoyo y asistencia en cuestiones informáticas, de mantenimiento y de gestión que le sean requeridos por el Ayuntamiento de Olaberria en relación con los servicios informáticos prestados.



Halaber, erreferentziako hitzarmen markoan xedatutakoaren arabera, informatika-zerbitzuak Olaberria(e)ko Udalaren antolakuntza-egituraren maila guztietan ezarriko ditu, bere ezaugarriak eta premia zehatzak kontuan hartuta, eta Erakundeko pertsonalari prestakuntza egokia emango dio.

HIRUGARRENA. *Olaberria(e)ko Udalaren betebeharrak.* Olaberria(e)ko Udalak konpromisoa hartzen du hitzarmen honen xede diren informatika-zerbitzuak egin eta jasotzearen ondoriozko diru-ekarpenak hitzarmen markoaren hamaikagarren klausulan zehazten den gastuak banatzeko sistemaren arabera egiteko eta burutzen diren jardun guztietan eraginkortasunez parte hartzeko.

LAUGARRENA. *Baliabide materialak eta giza baliabideak.* Informatika-zerbitzuak IZFE, S.A. sozietatearen baliabide materialak eta giza baliabideak erabiliz eta bere Zerbitzu Zentralen eta Zonako Zentroen bitartez egingo dira.

BOSGARRENA. *Datuak konfidentziasunez maneiatzea.* Informatika-zerbitzuak egiteko erabiliko diren instalazioek IZFE, S.A. sozietateak erabiltzen dituen datuak konfidentziasunez maneiatuko direla bermatzeko beharrezkoak diren segurtasun-baldintzak izango dituzte, hala ezartzen baitu indarreko legeriak.

SEIGARRENA. *Egingo diren zerbitzuak.* Erreferentziako hitzarmen markoaren zazpigarren klausulak aztergai dituen informatika-zerbitzuen esparruan, IZFE, S.A. sozietateak oro har ondoko zerbitzuak egingo dizkio Olaberria(e)ko Udalari:

- a) Datuak prozesatzeko zentroko informatika-zerbitzua egitea eta fitxategiak, zerrendak, zintak eta abar... egin eta banatzea.

Asimismo, de conformidad con lo dispuesto en el convenio marco de referencia, realizará la implantación de los servicios informáticos en todos los niveles de la estructura organizativa del Ayuntamiento de Olaberria, en función de sus características y necesidades concretas, incluida la formación adecuada al personal de la Entidad.


TERCERA. *Obligaciones del Ayuntamiento de Olaberria.* El Ayuntamiento de Olaberria se compromete a realizar las aportaciones económicas que resulten como consecuencia de la efectiva prestación y recepción de los servicios informáticos objeto del presente convenio, de acuerdo con el sistema de distribución de gastos previsto en la cláusula undécima del convenio marco, así como a colaborar y participar activamente en cuantas actuaciones se lleven a cabo.

CUARTA. *Medios materiales y personales.* La prestación de servicios informáticos se llevará a cabo a través de los medios materiales y personales de IZFE, S.A., así como a través de sus Servicios Centrales y Centros Zonales.

QUINTA. *Confidencialidad en el manejo de datos.* Las instalaciones en que se presten los servicios informáticos dispondrán de las necesarias condiciones de seguridad para garantizar la confidencialidad en el manejo de los datos que utiliza IZFE, S.A. de conformidad con la legislación vigente.

SEXTA. *Servicios objeto de prestación.* En el ámbito de los servicios informáticos a que se refiere la estipulación séptima del convenio marco de referencia, los servicios que con carácter general prestará IZFE, S.A. al Ayuntamiento de Olaberria serán los siguientes:

- a) La prestación del servicio informático del centro de proceso de datos, así como la emisión y distribución de ficheros, listados, cintas etc...




- b) Udal erabiltzaileari oinarrizko aplikazioak eta/edo sartzen diren aplikazio berriak ezartzen laguntzea. Laguntza honek, gutxienez, ondokoak hartuko ditu bere baitan: aplikazioa ezarri aurreko prestakuntza, aplikazioari buruzko kontsultaz-zerbitzua, behar bezala trebatutako pertsonalarekin eta kontsultei erantzuteko 24 orduetik beherako itxaronaldiarekin, eta erabiltzaileak aplikazioa hobetzera zuzenduta egindako proposamenak kontuan hartzea.
- c) Aplikazioak mantentzea eta hobetzea, garatu ziren eskakizun eta ezaugarriekin erabil ahal izan daitezen, batzorde teknikoen eskaeren eta inguruko premia teknologikoen arabera.
- d) Udalaren jabetzako datuak Legeak exijitutako segurtasun eta konfidentzialtasuneko baldintzetan zaintzea.
- e) Merkatuan dauden informatika-produktu berriak analizatu eta baloratzea.
- f) Informatikako gaiet buruzko aldizkako prestakuntza-ikastaroak antolatzea, batez ere IZFE, S.A. sozietateak garatutako aplikazioei buruzkoak.
- b) La asistencia al Ayuntamiento usuario en la implantación de las aplicaciones básicas y/o de las nuevas aplicaciones que se vayan incorporando. Esta asistencia comprenderá, como mínimo, la formación previa a la implantación de la aplicación, servicio de consultas sobre la misma con personal suficientemente capacitado y con un lapso de respuesta a estas consultas no superior a 24 horas y toma en consideración de las propuestas elaboradas por el usuario destinadas a mejorar la aplicación.
- c) El mantenimiento y mejora de las aplicaciones, de manera que puedan ser utilizables con los requerimientos y características con los que fueron desarrolladas de acuerdo con las peticiones con las comisiones técnicas y de las necesidades tecnológicas del entorno.
- d) La custodia de los datos propiedad del Ayuntamiento bajo condiciones de seguridad y confidencialidad exigidas por la Ley.
- e) El análisis y valoración de nuevos productos informáticos presentes en el mercado.
- f) La organización de cursos formativos periódicos en materias informáticas, especialmente en lo relativo a las aplicaciones desarrolladas por IZFE, S.A.

ZAZPIGARRENA. *Berriazko zerbitzuak.*
Orokorrean egiteko informatika-zerbitzuekin batera, IZFE, S.A. sozietateak Eranskinan adierazitako zerbitzuak eskainiko dizkio Olaberria(e)ko Udalari.

ZORTZIGARRENA. *Udal-solaskideak.*
Hitzartutako alderdien artean beharrezko komunikazioa mantentzearen, Olaberria(e)ko Udalak ordezkari bat izendatuko du IZFE, S.A. sozietatearekiko solaskide gisa, egindako edo egingo diren zerbitzuekin zerikusia duten eta toki-erakundearen eragina izan dezaketen gai edo gorabehera guztiak koordinatzeko.

SEPTIMA. *Servicios de carácter específico.*
Junto a los servicios informáticos de prestación general, IZFE, S.A. ofrecerá al Ayuntamiento de Olaberria los servicios específicos indicados en el Anexo.

OCTAVA. *Interlocutores municipales.* Al objeto de mantener la necesaria comunicación entre las partes convenidas, el Ayuntamiento de Olaberria nombrará un representante de la Corporación en calidad de interlocutor ante IZFE, S.A. con la finalidad de coordinar cuantos asuntos o incidencias afecten a la Entidad Local en relación con los servicios prestados o que vayan a prestarse.



BEDERATZIGARRENA. *Gorabeherak konpontzea.* IZFE, S.A. sozietateari dagokio, Udalak eskatuta, datuak prozesatzeko zentroaren eta Olaberria(e)ko Udalaren instalazioen arteko komunikazioetan izan litezkeen gorabeherak konpontzea eta informatika-zentroarekin konektatutako ekipoen funtzionamendu zuzena ziurtatzea.

Ondorio horietarako, IZFE, S.A. sozietateak emandako funtzionamendu-eskuliburuetan orokorrean ezarritako eskakizunekin bat etorri beharko dute udal-instalazioek.

HAMARGARRENA. *Hardwarea erostea.* IZFE, S.A. sozietateak emango du Toki-Erakundearen informatika-ekipoak eguneratzeko premien berri, eta Hardware-elementu arruntan (router edo bidatzailleak, modemak, etab.) erosketa kudeatu ahal izango du eskatzen zaion neurrian eta alderdietan.

HAMAIKAGARRENA. *Facturazioa.* Hitzarmen honen xede diren informatika-zerbitzuak hiru hilez behin fakturatuko zaizkie Udalei, eta honako kontzeptu hauek barne hartu beharko dira:

- a) Lankidetzaprojektuaren plana, hitzarmen markoaren hamargarren klausulan ezarritako gastu-banaketaren arabera.
- b) Komunikazioen gastua, hitzarmen markoaren zazpigarren klausularen arabera banatua.
- c) Paper eta material kontsumigarriaren gastuen derrama, aurreko hiru hilekoan egindako kontsumoen arabera zehaztua.

Nolanahi ere, udal-kontabilitatea behar bezala eramateko beharrezkoak diren baldintza eta xehetasunekin egin beharko da faktura.

NOVENA. *Resolución de incidencias.* La resolución de las incidencias que puedan producirse en materia de comunicaciones entre el centro de proceso de datos y las instalaciones del Ayuntamiento de Olaberria, así como el correcto funcionamiento de los equipos conectados al centro informático, corresponderán a IZFE, S.A. a petición del Ayuntamiento.

A estos efectos, las instalaciones municipales deberán adecuarse a los requerimientos establecidos con carácter general por IZFE, S.A. en los manuales de funcionamiento facilitados.

DECIMA. *Adquisición de Hardware.* Las necesidades de actualización de los equipos informáticos de la Entidad Local, serán informadas por IZFE, S.A., quien podrá gestionar la adquisición de elementos de Hardware Comunes (routers, módems, etc...) en la medida y en los extremos en que sea solicitado.

UNDECIMA. *Facturación.* La facturación por la prestación de los servicios informáticos objeto del presente convenio se realizará con carácter trimestral y deberá incluir los siguientes conceptos:

- a) Plan proyecto de colaboración, con arreglo a la distribución de gastos establecida en la estipulación décima del convenio marco.
- b) Gasto de comunicaciones distribuido, asimismo, de acuerdo con la citada estipulación séptima del convenio marco.
- c) Derrama de gastos de papel y material consumible, determinada en función de los consumos realizados el trimestre anterior.

En todo caso, la factura deberá emitirse con los requisitos y el detalle necesarios para la correcta llevanza de la contabilidad municipal.



HAMABIGARRENA. *Gatazkak ebaztea.* Hitzarmen hau interpretatu, garatu eta betearaztean sor daitezkeen zalantzak eta ezadostasunak erreferentziako hitzarmen markoaren hamabigarren klausulan ezarritako Jarraipen eta Koordinazio Batzordeari aurkeztuko zaizkio, argitu eta ebatz ditzan.

HAMAHIRUGARRENA. *Hitzarmenaren berrikuspena.* Hitzarmen honetan zehaztutako informatika-zerbitzuak alderdien arteko akordioz berrikusi ahal izango dira, zerbitzuak hobetu edo areagotze aldera, aplikazioen azpibatzaordeek kontsultatu eta aztertu ondoren. Jarraipen eta Koordinazio Batzordeari jardun horien berri eman beharko zaio, urtero onartu behar duen zerrendari eransteko, hitzarmen markoaren hamaseigarren klausulan zehaztutakoaren arabera.

HAMALAU GARRENA. *Indarrean sartzea eta indarraldia.* Hitzarmen honen indarraldia 2003ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra artekoa izango da. Epe hori bete eta alderdiren batek espresuki salatu ez badu, termino berberetan eta beste horrenbesteko denboraldirako luzatutzat joko da.

HAMABOSGARRENA. *Hitzarmena salatzea.* Hitzarmena sinatzen duten alderdietariko edozeinek klausulak ez betetzeak hitzarmena salatzea ekar dezake berekin.

HAMASEIGARRENA. *Jurisdikzio eskuduna.* Administrazioarekiko auzien jurisdikzioko auzitegiei dagokie hitzarmen hau aplikatu eta garatzearen ondorio diren auziez arduratzeko eskumena.

HAMAZAZPIGARRENA. *Hitzarmena betearaztea.* Hitzarmen hau betearaztean zorrozki aintzat hartuko da Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta EUDEL-en arteko hitzarmen markoan oro har ezarritakoa.

DUODECIMA. *Resolución de conflictos.* Las dudas y discrepancias que puedan surgir en la interpretación, desarrollo y ejecución del presente convenio se elevarán para su aclaración y resolución a la Comisión de Seguimiento y Coordinación establecida en la cláusula duodécima del convenio marco de referencia.

DECIMOTERCERA. *Revisión del convenio.* Los servicios informáticos determinados en el presente convenio podrán ser objeto de revisión, mediante su mejora o ampliación, de mutuo acuerdo entre las partes, en su caso, previa consulta y estudio por las Subcomisiones de las Aplicaciones; debiéndose informar de tales actuaciones a la Comisión de Seguimiento y Coordinación para su incorporación a la lista que ésta anualmente debe aprobar, según lo determinado en la estipulación decimosexta del convenio marco.

DECIMOCUARTA. *Entrada en vigor y vigencia.* El presente convenio tendrá vigencia desde el 1 de enero hasta el 31 de diciembre de 2003 y, salvo denuncia expresa de alguna de las partes, se entenderá automáticamente prorrogado en todos sus términos por iguales períodos de tiempo.

DECIMOQUINTA. *Denuncia del convenio.* El incumplimiento de las cláusulas del presente convenio por cualquiera de las partes firmantes podrá dar lugar a la denuncia del mismo.

DECIMOSEXTA. *Jurisdicción competente.* Para el conocimiento de las cuestiones litigiosas derivadas de la aplicación y desarrollo del presente convenio serán competentes los Tribunales de la jurisdicción contencioso-administrativa.

DECIMOSEPTIMA. *Ejecución del convenio.* La ejecución del presente convenio se realizará, en todo caso, con estricta sujeción a lo establecido con carácter general en el convenio marco entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y EUDEL.



Eta ados daudela frogatuz, hitzarmen hau bi aletan izenpetu dute, ondorio bakarrerako, goiburukoan adierazitako toki eta egunean.

Y en prueba de conformidad, firman el presente convenio por duplicado, y a un solo efecto, en el lugar y fecha señalados en el encabezamiento.

Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea/
Sociedad Foral de Servicios Informáticos

Sin./Fdo.: Joaquín Villa Martínez

Olaberria(e)ko Udaleko Alkate jauna/andrea /
El/La Alcalde/sa del Ayuntamiento de Olaberria

Sin./Fdo.: Txomin Mendoza Pérez

